

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 2012ko Elkartasunaren "Nafarroa" Nazioarteko Sariaren oinarriak aurkeztu ditu

40.000 euroko finantzaketa guztia Euskadiko Kutzaren esku geratuko da

Jueves, 26 de abril de 2012

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilari Elena Torres Mirandak gaur goizean aurkeztu du prentsaurrekoan 2012ko Elkartasunaren "Nafarroa" Nazioarteko Saria. Harekin batera izan da Euskadiko Kutzako lurralde-zuzendari Javier Cortajarena, eta azken horrekin lankidetzahitzarmena izenpetu du sariaren deialdia egiteko.



Nafarroako Jauregiaren fatxada.

Kontseilariak aurkezpenari hasiera eman dio jendaurrean eskertuz "Euskadiko Kutzak egindako ahalegina, era berezian sariaren aurtengo finantzaketa guztia bere gain hartu baitu". Horretarako, 40.000 euro jarri du, kopuru horretatik 15.000 kudeaketa eta antolaketarako, eta 25.000 2012ko sarirako. Gogoratu behar da aurreko edizioetan finantzaketa mistoa zela, Nafarroako Gobernuak eta Euskadiko Kutzak kopuru bera jarritz.

Foru Gobernuak, berriz, epaimahaiaren zabalkundea, eraketa eta antolaketa bere gain hartzen du, eta baita hautagaitzen harrera eta azterketa nahiz sari-banaketako ekitaldiaren antolaketa ere. Hori guztia, Euskadiko Kutzaren ikuskaritzaren eta partaidetzaren pean. Erakunde hori epaimahaian eta hautagaitzen aurre-aukeraketan ordezkaturata izango da.

Berrikuntza horrekin, sariaren izen-aldaketa ere azpimarratu behar da; aurtengo edizioan bere jatorrizko izena hartuko du.

Jakina denez, Elkartasunaren "Nafarroa" Nazioarteko Saria 2001ean sortu zen Euskadiko Kutzaren laguntzarekin. Helburua da, garapenenaren nazioarteko kooperaziorako edozein esparrutan ibilbide aipagarria izan duten erakunde, gobernu kanpoko erakunde eta pertsona fisikoek burututako lana aitortzea eta, bereziki, Milurtekoa Garatzeko Helburuak betetzen lagundu dutenen lana.

2010. urtean, Nafarroako Printzea Nafarroako Nazioarteko Sariaren

sorrerarekin, Elkartasunaren saria sari horien barnean sartu zen. Nolanahi ere, egungo egoera ekonomikoa dela eta, sarietako bakoitza besteenetatik bereizi da, jatorrizko izena errekuuperatuz eta bereizita emanez.

Proposamenak Gizarte Politika eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusira igor daitezke, edo posta elektronikoz bidal daitezke (servcoopdes@cnavarra.es).

Aurkezteko epea oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zabalik izango da, ekainaren 15a arte. Aurreko edizioetan bezala, hautagaitzak proposatu ahal izango dituzte: erakunde publikoek, hezkuntzako erakundeek, kultura eta gizarteko erakundeek, gobernuz kanpoko erakundeek, epaimahaikideek eta antolakuntzak gonbidatzen dituen pertsonak.

Aurre-hautaketako lehen fase bat egongo da, eta baloratuko dira: Milurtekoa Garatzeko Helburuentzako laguntza eta Giza Garapenaren sustapena, edukiaren izaera berritzailea, esku-hartzen duen komunitatean duen errotzea, edo gizartea eraldatzeko ematen duen laguntza. Erabakia prentsaurrekoan jakinaraziko da, eta saria Nafarroako Jauregian antolatuko den ekitaldi batean emango da, urrian edo azaroan, ziur asko.

Aurreko edizioetako sarituak izan dira: Manuel Elkin Patarroyo (2011), Creative Handicrafts GKE (2010) eta Aguarico-ko Bikarriotza Apostolikoa (2009).

Garapenerako Laguntza Ofizialaren 16,6 milioi euroko laguntza

Torres kontseilariak emandako datuekin jarraituz, herstura-garaian izan arren, Nafarroako Gobernuak 16,6 milioi euro jarri du Garapenerako Laguntza Ofizialerako. Zifra hori aurrekontuaren ehuneko 0,6 da, 27 euroko batez bestekoa biztanle bakoitzeko, Espainia guztiko handiena.

Azaldu duenez, datuek egiaztatzen dute "herri-administrazioen ahalegina garrantzitsua dela, eta garrantzitsua dela ere erakunde pribatuena, Euskadiko Kutzaren kasuan bezala, gizarteko talde ahulenei ere lagunduz".